


Fonografotik MP3ra,
patenteengatiko
borrokaren historia.



A N N A R A M O S

Formatua da erronka

Fonografoaren eta gramofonoaren egunetarik, disko industriaren historiaurretik, datuak eta soinua biltzeko estandarrek merkatuan sartu dira fidagarritasuna, kalitatea eta denborarekiko erresistentzia frogatu ahal izan baino lehen. Industriaren merkataritzak dinamika, zerbitzu bat eskaintzea baino gehiago kezkatzen diona bere estandarra ezartzea, zenbait gaitz endemiko betikotu eta elikatu ditu erregulariki errepikatzen joan direnak publikora iritsi diren erreprodukzio eta grabazio formatuen bilakaeraren bidez.

Ispiluaren beste aldean, artisten, melomanoen eta neofitoen beharrak, patenteen gerra prebentibo horren lehenengo biktimak, deserosotasun gehiago edo gutxiagorekin egokitzen joan dira merkatuaren inkongruentzietara, oso noizean behin erabilera berriak, bere akats edo berezitasunei balio artistiko bat definitzen lagunduz. Joerak edo egiteko moduak, nahiz eta, ia ez duten merkatuaren lege batzuk eta zaharkitua eta kontraesankorra den statu quo bat zalantzan jartzea lortu.

Baina historia hori ulertzeko, ezaguna bezain korapilatsua dena, onena disko industriaren hasiera edo sorkuntzat hart litekeeneraino atzera egitea da. Horretarako, ezinbestekoa da XIX. mende amaieran gelditzea, non Thomas A. Edisonk (1847-1931) soinua erregistratu eta erreproduzitzeko lehenengo mekanismoa asmatu zuela esan zuen: fonografoa. 1877an patentatua, asmakizuna memoria kolektiboan txertatua daukagu: diafragman amaitzen den kono moduko bat zilindro batean idatzi edo grabaturikoak irakurtzeko gai zen orratz baten gainean durundatzen zena, eta jatorrian ezta inu paperez estalia zegoena. Hasierako kalitatea, noski, eztabaidagarria zen, baina kalean "talking machines" deitzen hasi zirena merkatutzeko karrera azkar pasatu zen lehentasun nagusia izatera. Berezi, Washington DCn bizi zen Emilio Berliner alemaniarra eta bere gramofonoa eszenan azaldu zirenean. Scotten fonoautografoan eta Cross disko makinan oinarriturik, 1888an patentatutako Berlinerren gramofonoaren berezitasuna zen soinua azalera lau baten gainean grabatzen zuela... disko formako azalera lau baten gainean. Aparatu bien arteko beste desberdintasun bat zen fonografoaren inprimatzea modu bertikalean egiten zela eta gramofonoarena horizontalki egiten zela. Guztiok dakigu zein izan den gure egunetara (nahiko lanekin bada ere) iritsi den estandarra, baina agian ez dakigu zergatia edo nola iritsi zen. Hasieratik, Edisonk denbora bere alde eduki zuen bere proiektua garatu eta definitzeko baina, batez ere, bere enpresaren botere logistikoa eta politikoa ere bai, azken unea arte erabili eta esplotatu zituen armak. Fonografoa sortu baino urte bat lehenago, Menlo Parkeko bere laborategi oso ekipatua bonbilla elektrikoa diseinatu zuen; hasieran gobernuaren eta industriaren laguntza topatu ez zuenez berak garatu eta inbenturatu zuen asmakizuna. Eta jada 1882an martxan jarri zuen New Yorken lehenengo generadore orokorra. Horrelako adibideek balio dute Thomas Alva Edisonaren botere faktikoa ilustratzeko, eta historia hau gehiago esplotatzeko gehitu behar da oso txikitatik belarriko arazoak zituela.

Menlo Parkeko aztiak garaiko 3 milioi dolar zuzendu zituen bere fonografoa garatzera, eta bere ahalegin guztia inbertitu zuen zilindroaren iraunkortasuna lortzeko, entzute bakoitzean nabarmen hondatzen baitzen eta haren soinua pixka bat aldatzen zen kopia batetik bestera. Bere beste borroka eremuetako bat izan zen erregistratzen zituen piezen iraunkortasuna, ahalegin askorekin erreprodukzioko lau minutu izatera iritsi zirenak 1908an. Ringaren beste aldean, Emilio Berlinerrek hasiera-hasieratik bere alde eduki zuen bere diskoak Edison zilin-

droak baino errazagoak zirela manufacturatzeko. Original bat hartuta milaka kopia prentsatu zitezkeen fonografoak denbora errealean grabatzen zuen bitartean.

Diskoen iraupena eta iraunkortasuna handiagoa zen, baina grabaketaren kalitatea ez, bere kontrakoa izan beharko lukeen alderdia. Paradoxikoki, gramofonoren salmenta argudioak prezioan eta eskuragarri zeuden kopia kopuruan oinarritu ziren bereziki, bere Akilesen orpoa ezkutatzeko ahalegin traketsen. Eta faktore horien aurka 1901ean Amerikako Estatu Batuetako konpainia fonografiko desberdinek sortutako lobbyak, Edison buru zela, ezin izan zuen asko egin. Gramofonoak eskaintzen ziren erresistentzia garrantzitsuari aurre egiteko estandarrak batu zituzten eta denbora epe oso motzean beren gramofonoen iraupena eta kalitatea hobetu zuten argizarizko zilindroekin, baina Berlinerren diskoak 1904ean jada 4 minututara iristen ziren beren 12 hazbeteekin, eta ekintza gogoangarri hori fonografoak ez zuen lortu berdintzea 1908 arte. Gehitutako zailtasun gisa, 1905ean eta Atlantikoaren beste aldean, Pathé anaiek zilindroak fabrikatzeari utzi zioten gramofonoak merkaltzeko. Estandarra ezartzeko borrokak 1913 bitarte iraun zuen, non Edisonek azkenean amore eman behar izan zuen diskoaren "nagusitasunaren" aurrean eta bere Edison Diamond Disc-a merkaturatu zuen. Ironikoki, lehiakidea garaitzeko azkeneko saiakerak, 1908an merkaturatutako Opera izenarekin, erreproduktzio eta denboran iraunkortasunaren ziren kalitatea, askok diotenez, gramofonoarena baino hobea zen, baina batere bidezkoa ez zen bere prezioa bere kontrakoa izan zen. Hala eta guztiz ere, azken gramofonoak 1929 arte saldu ziren.

Gramofonoa merkataldu eta mende bat beranduago eta aro digitala gure poltsikoetan sartuta, kalitate txikiko formatuak dira (diote) diskoaren industria mehatxatzen dutenak. Bere arrakastaren gakoak dira bere aldakortasuna eta trukatzeko erraztasuna (industriaren trakeskeriagatik, alderdi hori dohainik edo legez kanpo egiten da gehiago). Kompresio digitaleko formatuak erreferentzia egiten ari naiz, noski, MP3, WMA, AAC edo OGG Vorbis kasu, oso epe laburren disko industriaren ekintza eremua berriz definitzen ari direna. Azken hogeitun urteetan salmenten igoera izugarria puskatu duen egoera bat eta zeinaren aurrean multinazional nagusiek kopia-aurkako estandar baten (Copy-protection logo zalantzarriarekin azaltzen da) merkaturatzearekin erantzun duten, grabaketa prozesuan nahitako erroreak sartzen dituen ordenadore baten CD-ROMean irakurri ezin dadin (legezko edo legez kanpoko kopia betikotzen den lekua). Eta guzti hori, kontsumitzaileari erria bota ondoren norbaitek bere eskuetan jarri dituen erremintak erabiltzeagatik.

Egungo beste paradoxa batek Napster 2.0 izena darama, artxiboak libreki trukatzeko zerbitzu eztabaidatuaren bertsio berria da, mundu korporatiboaren aurka epaiketa bat eduki ondoren zarata handiz itxi zena copyraighta ez ordaintzeagatik. 2003ko urritik, Napster.com-en aurkitzen dugu asmakizunaren legezko bertsioa eta korporatiboa, hainbat zerbitzuren artean Roxio eta Microsoften artean orkestratutako merkatu estrategia bat gordetzen du merkatutik bere betiko lehiakidea urruntzeko: Apple. Napsteren maniobra iluna da Applek merkaturatutako antzeko plataforma bati itzal egitea, iTunes Music Storei, zerbitzu bera eta audioa WMA-n eskainiz, Aplen iPodekin bateraezina den formatuan, audio konprimatu portatilen merkaturatzean onenen zerrendetan egoten dena. Soberan dago esatea aplikazio horiek industriak legez kanpoko audio banaketa eta trukaketa arintzeko partxe azkarra izatera deituak daudela. Nahiz eta gurgiletan makilak jartzea ere deitu ahal zaion.

Paradoxikoki, duela hamarkada pare bat saltzeko argudioa eta disko industriaren eztanda ikusgarriaren arrazoi nagusia izan zen gama altuko audioa. Kalitaterako 1982an Compact Disca iritsi zen, teknikoki 1960 hamarkadan garatu zena baina ez zuena merkaturatzea lortu Philips eta Sony mahai batean negoziatzera eseri ziren arte. Ez altruismoagatik: Sonyk laser teknologia zuen eta Philipsen gainerakoa. CDA liburu gorri batek lagunduta iritsi zen, masterizazio eta ekoizpen prozesuan bere behar ziren hainbat espezifikazio tekniko biltzen zituen, horietarik batzuk hain arbitrarioak ziren ezen musikari esperimentalen komunitatearen gurtza eta burla jaso zituzten.

Audio digitalak azkar zapaldu zuen belaunaldi analogikoa, beste arra-

zoi batzuen artean disko zigilu handiak oso estu erlazionatuak zeudelako merkatura eraman zuten enpresa teknologikoei; egoera horrek eraman zuen musikaren industria egun ere salmenta errekorra duen kopururaino. Lortu ez zutena izan zen binilo zaharraren eta akabera analogikoaren maitaleak isiltzea. Historiaren momentu horretan, soinuaren kalitatea berriz ere oso erlatiboa izatera pasa zen: konpresio digital formatuetan belarriak antzematen ez dituen datuak (ustez) alde batera uzten dituzte, grabaketa digitalak erregistratu behar zituen datu kopurua mugatu behar zuen eta erabaki zuen segundoko 44.100 sample giza belarria engainatzeko adinako bereizmena zela. Hala eta guztiz ere, sistema analogikoa, nahiz eta hauskorragoa zen, informazio GUITIA biltzen zuen mugimendu mekanikoetan (biniloa) edo modulazio magnetikoetan (kasetea), eta horien bitartez baten eta zeroen kodifikazioak eta erakuntza elektronikokoak eskatzen zuen murrizketa ez zen behar. Beraz, haren defendatzaileek diotenez, masterraren erreproduktzio ERREALA bermatzen du bere kopia baldintza ezin hobetan mantentzen bada. Sistema digitalak ez bezala, bereizmen analogikoa grabaketa prozesuan erabilitako materialek eta osagaiak mugatzen dute, baina ez industriaren konbentzio arbitrario batek. Horrek esan nahi du ere soinuaren kalitatea hobetu daitekeela, erabiltzen den erreproduktzio sistemaren arabera eta, ondorioz, benetako zentzua ematen die merkatuak eskaintzen dizkigun fidelitate altuko entzuteko sistemei. Disko konpaktua, gogora dezagun, hasieratik mugatua dago bere segundoko 44.100 sanpletara.

CDaren kalitate alternatiba 1987an etorri zen DAT izenarekin (Digital Audio Tape) Sonyren eskutik eta segundoko 48.000 sample erregistratzailea iristen zen. Ez zen merkaturatu lehen zinta digitala izan (1970eko hamarkadan merkataldu zen bat baina ez zuen arrakastarik izan) ez eta azkena ere (1990eko hamarkadan Philipsen DCC izenarekin merkataldutako estandarrak ere porrot egin zuen), baina industriaren ankerkeriei biziraun dien bakarra izan da, ziurrenik patentea Sonyrena delako eta musikari askok euskarri horren indarra ikusi zutelako grabaketa profesionaleko edo giroko eremuan. Hala eta guztiz ere, bere garaian, DATak CDarekin lehiatzeko asmoa zuen "disko dendetan", nahiz eta askok ez genuen ikusi ere egin.

Nahiz eta, beste askotan bezala, Philips eta Sonyren elkarlana beharko den CDaren estandar mugatua gainditzeko. Haien apustu berria duela ez asko iritsi da eta Super Audio Compact Disc izena du. Compact Discaren tamaina bera du baina bere seinale digitala (DSD izeneko) desberdina da, eta horrek segundoko 2.822.400 sample eskaintzen ditu. SACDa interneten jarrerak audioaren kalitatearen inguruko betiko eztabaida ireki duen momentuan azaldu da, egun desagertzeko arriskuan dagoena formatuen miniaturizazio eta desagertze prozesuak bere bidea jarraitzen badu.

Leitmotiv berarekin (miniaturizazioa) sortu ziren Mini Disc (1992) eta MData bezalako estandarrak, musika (eta datuak, bigarrenaren kasuan) portatil eta digitala eskaintzen zutenak espazio barregarrian eta horietatik lehenengoak bakarrik biziraun du eta oraindik ere ikusteko dago zenbat denboran. Belaunaldi digitalarekin disko industriaren historiaurrea orkestratu zuten kezkek atzean uzten ditugu, euskarrien iraupena eta iraunkortasuna, baina obsesio eta diatriba berriak sartu dira (lehenengo tamaina vs. Kalitatea, orain konpresioa vs. Idem), eta horrek, konpontzetik urrun, estandar eta formatu berriak eragiten ditu iraugitze data beren argibideetan alde batera uzten dutenak. Historia honetan guztian, audioaren bereizmena (industriaren azkeneko izateko arazoia) azkenean Einsteinen erlatibitatearen teoria baino aldakorrago gertatu da. Denboraren zeinu, patenteak ezartzeko karrera badirudi gehiago arduratzen dela edozein gauza sartzean horrek eskaintzen dituen benetako ezaugarrietaz baino. Nahiz eta, kontsumitzailei ez bazaigu axola, nori axolako zaio? ❧

Testu hau Roc Jiménez eta Anna Ramosen *El formato is the challenge* hitzaldian oinarritua dago.

ANNA RAMOS kazetaria eta mertzenarioa da, bere aisialdia bere txintxila, Perkele, bere disketea, Alku, eta bere laguna, Roc Jiménez de Cisneros, zaintzen erabiltzen duena. Biderkagaien hurrunkerak ez du biderkadura aldatzen.